

IV. ERANSKINA

UPV/EHU_n AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Esleipendunek honako dokumentazio hau bidali beharko dute rrhh-inves.dgi@ehu.eus helbide elektronikora, pdf formatuan, **2023ko martxoaren 17tik 22ra bitarteko epean:**

- a. Deialdi honen adjudikaziodun gisa dituzten betekizunak onartzeko dokumentua, tesiaren zuzendari kideek eta adskripzioari dagokion sail, institutu zein ikastegiko zuzendariak ontzat emana.
- b. Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituenak.
- c. Zinpeko aitortpena, non interesatuak adierazten duen inoiz kontrataturik egon ez dela Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 14/2011 Legeko 21. artikuluan aurreikusitako doktorego aurreko kontratu modalitatearen bidez, eta, egon baldin bada, zenbat egunez.
- d. Zereginetan hasi izanaren ziurtagiria.
- e. Kasuan kasuko ikerkuntzarako etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.
- f. Doktorego programara sarbidea ematen du(t)en titulua(k) (gradua, masterra, lizentziatura).

Gainera, dokumentazioa UPV/EHUren Erregistro Orokorren bidez (esteka honetan kontsultatu daitezke UPV/EHUren erregistro bulegoen helbideak eta jendaurreko ordutegiak: <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/erregistro-orokorra-ordutegia>), UPV/EHUren Egoitza Elektronikoan dagoen erregistro elektronikoaren bidez edo, hala badagokio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduetako batean bidali beharko dute. Erregistro elektronikoa erabiliz gero (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>), "Nora" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketaren Giza baliabideen Kudeaketa (U02000381)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "PIF PAU 2022".

Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da dirulaguntzari uko egiten zaiola.

Erabili beharreko ereduak errektoreordetzako webgunean daude eskuragarri ("*Dokumentuak*" izeneko erlaitza).

Dokumentazioa aurkezteari eta kontratazio prozesuari buruzko kontsultak rrhh-inves.dgi@ehu.eus helbide elektronikora bidali behar dira.